

OIARTZUN

OIARTZUN IKERTZEN



Egileak:

Ihote taldea

LH5



Ikastolen Elkartea

OIARTZUN gozatu

ZIRRI-LATZ



Welcome!

Ongi etorri gure herrira!

Â¡Explora, descubre y sueña!

Zatoz eta gozatu!

Aurkezpena

Kaixo, lagunak! Ni Zirri-latz naiz.

Oso ausarta naiz, erronkei aurre egitea eta gainditzea lortzen dut. Oso indartsua ere banaiz, aise altxatzen ditut pisu handiko gauzak.

Presentación

Kataxulon bizi naiz beste zazpi intxisuekin (Kataxulo, Aiako Harrian dago, Oiartzunen). Oso ondo pasatzen dugu sorginekin jolasean.

Nahi al duzue egun zoragarri bat pasatu nire herriaren altxorrak ezagutzuz?

OIARTZUN

begirada batean

Kokapena

Oiartzun Gipuzkoako iparraldean eta Kantauri itsurialdean dago, Oarsoaldean. Irun, Lesaka, Lezo eta Orereta ditu mugakide.



Erliebe-elementuak

Oiartzun menditsua da: Aiako Harria, Bianditz, Urkabe... Herria, haran batean dago eta, bertatik, Oiartzun ibaia pasatzen da.

Bestelako informazioa

Oiartzunen pertsona ospetsu ugari daude, adibidez: Alaia eta Jon Martin, Xabier Lete, Ander Imaz, ...

Urtean behin, intxisuak jeisten dira herrira. Festa, janaria eta sua dago. Oso ondo pasa daiteke.

ZER IKUSI (Interesgune naturalak)

OIANLEKU



Oianleku, Aiako Harriko parke naturalean dago. Oianlekun, zuhaitz asko daude: Pagoa, Haritza, Panpanoa ...

Oianlekun kromletx bikoitz bat dago 26 m-ko diametrokoa eta 47 harriz osatutakoa. Oianleku inguruan mendi asko daude, Arritxulegik eta Munagirrek inguratzen dute.

ZER IKUSI (Interesgune naturalak)

ARDITURRIKO MEATEGIA



Arditurriko meategiak 8 km ditu, hoviekin kontatuta. Aiako Harriko parke naturalaren parte da. Erromatar garaitik XX. mende bukaera arte ustiatu diren meategiak daude. Bereziki ondoan dauden basoan, pagoak eta haritzak aurki ditzakezu. Barruan hotz handia egiten du, hobeto berokia jantzita sartzen bazara.

Arditurri ondotik pasatzen diren errekek, Oiartzun ibaia sortzen dute.

ZER IKUSI (Interesgune artistikoak)

LUBERRI GEOLOGIA MUSEOA



Luberrri geologia museoa Oiartzunen dago (Gipuzkoan) Ergoien auzoan, Olaizola elkartearen ondoan eta bidegorritik oso gertu.

Luberrri XXI. mendean sortu zen, 2009ko ekainaren 6an. Bertan, animali eta landareen fosilak eta horien informazioa dago. Egunero irekitzen dute, goizeko txanda 09:30tik-14:00 arte, eta arratsaldeko txanda 16:00tik-18:00 arte. Bere telefono zenbakia hemengo hau da: 943 26 05 93.

ZER IKUSI (Interesgune artistikoak)


SAN ESTEBAN ELIZA



San Esteban eliza, Oñartzungo Elizalde auzoan dago. Aro Modernoko garaian eraiki zen. Bere inguruan herriko liburutegia eta plaza nagusia ditu.

Oñartzungo jaiak, Xanistebanak dira, horrela deitzen dira elizan gordetzen den patroia izenagatik. Elizak kapera bat du, espazio karratua da (dorreaken forma aprobetxatuz).

Zirkuituaren mapa



Legenda

Norabidea



Erreferentzia-puntua



Abiapuntua



Interesguneak



Helmuga



Zirkuituaren deskribapena

Zure zirkuituaren lehen urratsa



- Kiroldigitik elizara joateko, abiatu Elorrondo kaletik. Kale bukaerako biribilgunean hartu lehenengo irteera.

Deskribapena

Gero, abiatu Manuel Lekuona hiribidetik, malda igoz. Behin igo duzula, aparkatu ahal duzun lekuan eta eliza ikusiko duzu.

Zirkuituaren deskribapena

Zure zirkuituaren bigarren urratsa



- Elizatik Oianlekura joateko, jaitsi Aialde kaletik, bukatu arte. Jarraitu zuzen Arraskuelarre kaletik.

Deskribapena

Hartu Santusene kalea Eroski merkatuaren norabidean. Biribilgunean hartu bigarren irteera. Santusene kalea bukatzean, jarraitu Martintxo kaletik eta Olalde kaletik. Aurrera jarraitu km batzuk Oianleku arte.

Zure zirkuituaren hirugarren urratsa



- Oianlekutik Luberri museora joateko, joan zaitez Zokolo bidetik.

Deskribapena

Fortaleza jatetxera iristerakoan hartu GI-3420 errepidea eskubira. Ergoien auzoko gunea zeharkatu ondoren, Pagoa garagardotegira iristerakoan, sartu poligonoan eta, bertan, Luberri ikusiko duzu.

Zirkuituaren deskribapena

Zure zirkuituaren laugarren urratsa



Deskribapena

Luberritik Arditurrira joateko, jarraitu eskubira GI-3420 errepidetik. Gero biratu ezkerrera Arditurri meategia ikusi arte.

Zure zirkuituaren bostgarren urratsa



Deskribapena

Arditurritik abiapuntura bueltatzeko, joan etorritako bidetik, Oianlekutik pasa gabe: Ergoienera, hemendik ezkerrera Altzibarrera eta Altzibartik kiroldegira.

Bisitarientzako gomendioak

Maskota bat baldin baduzu, bere hondakinak jaso.

Landareak ikusten badituzu, ez hartu.

No os sentéis en los monumentos históricos.

Id en pequeños grupos mientras andáis por la acera.

Bring a camera.

Bring an umbrella.